

H2 Hirigintzari buruzko kontsulta

(igogailuak jartzeko edo proposamen zehatz baten balorazioa).

Saila	Hirigintza
Zer da / Zertarako da	Igogailuak jartzeko aukera desberdinen arteko balorazioa eta finka zehatz bati ezarri ahal zaizkion hirigintzako baldintzei eta araubideari eta, orobat, plangintza orokorrari buruzko informazio idatzia.
Nork eska dezake?	Edozein pertsonak edo haren legezko ordezkariak.
Aurkeztu beharreko agiriak	1. Informazioa eskatzeko idazkia, eskabide orokorrari jarraiki egina. 2. Eskatzailearen NANA. 3. Kasuaren arabera, agiri hauek: - Informazio-eskaeraren xede den finka edo higiezinaren identifikazioa (katastroko erreferentzia, erregistrokoa, identifikazio-planoa etab). - Egin nahi den obrari, jarduerari buruzko memoria edo igogailua jartzeko aukera aztertzen duen memoria teknikoa - Kokapen-planoa. - Barruko banaketaren planoak. - Jarriko den makineria.
Non eskatzen da?	Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean (San Bartolome 2, astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:00era). OHARRA: Aurrez aurre teknikariarekin bildu nahi ez gero ordutegia astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:30era. Hitz ordua duen herritarrari emango zaio lehentasuna. Hitz ordua eskatzeko telefono bidez: 943 697320 hirigintza@ibarra.eus
Zenbat kostatzen da?	Indarrean dagoen Ordenantza Fiskalaren arabera. 2016.Tasa 82,81€
Prozeduraren epea	-Zenbatetsitako epea: hilabete. - Administrazioaren isiltasunaren ondorioak: ez da horrelakorik behar.
Araudi aplikagarria	-Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bategineko 4-d) artikulua (2/2008 Legegintzako Errege Dekretua) (BOE, 154. zk., 2008/06/26). - Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 9. artikulua (EHAA, 138. zk., 2006/07/20). - Indarrean dagoen udal plangintza eta ordenatzak
Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura	1. Eskabide-orria eta agiriak jasotzea, eskaneatzea, egiaztatzea eta erregistratzea. 2. Eskatzaileari kopia zigilatu bat ematea, ziurtagiri gisa. 3. Hirigintza Sailari bidaltzea.
Geroagoko izapideen laburpena	1.Txosten teknikoa egitea. 2.Organo eskudunak ebazpena ematea.

	3.Kontu-hartzailletza Sailari bidaltzea, likidazioa egin dezan. 4. Interesdunari jakinaraztea.
Agiri lagungarriak	HIRIGINTZAKO ESKAERA ORRIA
Nork onartu behar du?	Alkatetzako dekretua
Informazioaren balioaldia	Araudia aldatzen den arte.